



Atzean ikusten den mendia da Pagasarri, Bilboko birika. • ALBERTO ERRAZTI

Pagasarriko mendialdea, arrisku bizian

Bilbotarrentzat hain berezia eta ezaguna den mendi hori hainbat proiekturen mehatxupean dago

ITZIAR MIELGO

Bilboko Hiri Agirian (1300) aipatzen zen jada Pagasarri. Bilbotarrentzat eta alboko herrirentzat betidanik mendialde garrantzitsu bat izan da; Ganekogorta, adibidez, Bizkaian zeuden bost mendi-bozinerotako bat zen eta, hemendik, ehi-za-adarrak erabiliz, Gernikako Batzar Nagusietarako deia egiten zen XVII. mendera arte. Lur eremu honetan, inguruko herrietako biztanleriarentzat historian zein garrantzi izan duen frogatzen duten elur-zuloak, gotorlekuak, baselizak, leizealdeak... aurki ditzakegu.

Bilborentzat, garrantzitsua da bere inguruan dituen altuera erdiko mendiak (Kobetas, Ar-

txanda...) babestea, horiek baitira biztanleriak dituen gunen natural bakarrak. Gainera, jendetza ugari eta hirigintza handiko hiri honen birrikak inguruko mendiak dira. Orain arte, Bilbotarrek paseatzeko, jolasteko, naturan ibiltzeko edo kirola egiteko erabili izan dute.

Orain dela bi urte, Ekologistak Martxan taldeko kide batzuk mendi honen inguruan lanean hasi ziren, eta 33 kilometro koadro dituen zonalde hau babestea proposatu zuten. Horretarako, Pagasarri baso periurbano bihurtzea proposatu dute, kudeaketa eta planifikazio zuzen bat izan dezan. *Baso periurbanoa* delako figura honek hainbat helburu ditu: naturguneak babestea eta kontser-

batzea; baso plan bat egitea, bertoko basoak lehengoratzeko; bisitarien sarrera erregulatzeko; ingurugiro hezkuntzaren jarduerak bultzatzea; natura babesteko egokiak diren jarduerak ekonomikoak sustatzea...

Pagasarrin landaretza eta fauna garrantzitsua aurki dezakegu. Lehenengoaren adibide gisa, haltzadia, hariztia, pagadia, artadia, sastrakak... ditugu. Faunan, hegaztien 58 espezie daude (belatz handia, zapelaitz arrunta...), ugaztunen 15 espezie (azkonarra, orkatza, azeria, basurdea...), 7 anfibio espezie eta 9 arrain mota topa ditzakegu. Gaur egun, zona honetatik ibilaldi bat eginez gero, hainbat eragin ikus ditzakegu. Utzita dauden harrobiak (9) eta oraindik ustiatzen ari direnak (3) ikus daitezke. Harrobiak, begian min egiteaz gain, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa sorrazten dute. Zabortegi legalak



San Rokeko ermita, Pagasarrin. • EGUNKARIA

PAGASARRI INGURUNEAN DAUDEN PROIEKTUAK

- Bilboko Hondakin Solidoak errausteko planta.
- Trapagaran-Arrigorriaga super-autopista (A8 zabaltzea).
- Santurtzi-Arrigorriaga gas hodia zabaltzea.
- Harrobiak ustiaketak handitzea.
- Zentral eolikoa.

(Artigaskoa adibidez) eta kontrol gabeko zabortegiak (60) ere badaude. Landaketek ere eragin kaltegarria dute, pista ugari irekitzea, matarrasak egitea eta makinaria astuna erabiltzea ekartzen baitute. Elektrizitate hariterien, dorretxoaren eta antenen kopurua ere ez da makala: 130 KW eta 200 KWetako 9 elektrizitate-hariteri daude, potentzia txikiagokoak kontutan hartu gabe. Horrez gain, talde honen iritzi, gaur egun Pagasarri dituen eragin kaltegarrienak suteak, ehizak, motorrak, 4x4 ibilgailuek, autoz doazen eta zaborra botatzen duten bisitariak sortzen dituzte.

Proiektu berriak

Baina orain dela hilabete gutxi gauzak asko aldatu dira. «Lana bikoiztu egin zaigu... naturgune hau arriskuan jarriko duten proiektu ugari daude...», salatu du Ekologistak Martxan taldeak. Alde batetik, Arraizen zabo-

agenda

- **Azaroaren 24an:** larrutegia- ren aurkako eguna.
- **Azaroaren 28-29an:** Hiri Hondakinen eta ingurugiro hezkuntzaren inguruko jardunaldiak, Madril. Informazio gehiago jasotzeko: 915 31 23 89 (Ecologistas en Acción).
- **Abenduaren 2an:** AHTren aurkako mendi ibilaldiak Donostaldea-Bidasoan. Goizeko 09:00etan hasiko dira: Urumea haraneko zutabea Hernaniko Gudarien plazatik abiatuko da; eta Bidasoa-Oarsoaldeko zutabea bilduko den jendea Irungo Landetxa auzoko Topoaren tren geltokitik; geroago ailegatuz gero, 10:00etan Ergobiako zubian, 11:00etan Martuteneko paseoa edo Oiarzungo Gurutze auzoa, eta 12:00etan Arra- guan, Oiarzunen. Gero, Pontika auzotik hurbil, Arramendiko benta izandako baserri-etxearen alboan, kalejira egingo da Ore- retako kaleetan barrena. Bukatzerakoan, herri bazkaria, Txin- txarri elkartearen.
- **Abenduaren 10etik urtarri- laren 5era:** ekodenda (pro- duktu ekologiko eta solidario- ak), Bilboko Pilota kaleko 5. zenbakian.
- **Abenduaren 15ean:** AHTren aurkako manifestazioa, Arrasa- ten.

rrak errausteko plantaren proiektua dago, eta obrak hasiak dira jada. Santurtzi-Arrigorriaga gas hodiaren zabaltzea. Taldearen hitzetan, «25 metroko zabalera izango du, eta Pagasarriren tontorrean eragina izango du». Arrigorriagan dauden Rezolako harrobien ustiakuntza bikoiztu nahi dute, eta honek naturgune honetan hobeto kontserbatzen den Bolintxu haranean eragina izango luke. «Larrako eta Goriko auzoetan ireki nahi ziren harrobi bien aurka aurkeztu genituen alegazioak onartu dituzte... dena den, oraindik Arrigorriagako zabaltzeko arriskua hor dago... Gero, A8 autopistaren kontua dago... Trapagaran eta Arrigorriaga lotu nahi dituzte, eta horretarako, mendiak zeharkatu-ko dituzten tunelak irekiko dituzte». Hori gutxi balitz, parke eoliko baten proiektua dago Ganekogortako gailurrerian: 70 metroko 20 haize-erota jartzeaz mintzo da Eusko Jaurlaritzak onarturiko Plan Eolikoa.

Pagadi zarratu batez beteriko lekua da Pagasarriren esanahia. Orain dela mende asko jarri zioten bilbotarrek izen hau... beharbada, proiektu hauek guztiak aurrera jarraitzen badute, «hormigoiz beteriko lekua» esan nahi duen izen bat bilatu beharko diogu.

Mendialde hori baso periurbano izendatzea proposatu du Ekologistak Martxan taldeak